



## Astigarragako Udala

Idazkaritza Kontu-hartzailetza • Secretaria-Intervención  
idazkaritza@astigarraga.net

### TOKIKO GOBERNU BATZARRAREN AKTA

**Batzordea:** Tokiko Gobernu Batzarra

**Bilera-zenbakia:** 2009ICGO0010

**Eguna:** 2009-10-09

**Ordua:** 11:15-12:15

**Tokia:** Alkatetza

#### Bertaratuak

- |  |           |
|--|-----------|
| - Bixente Arrizabalaga Bengoetxea            | ALKARBIDE |
| - Eloy Bazan Bazan                           | ALKARBIDE |
| - Zorione Etxezarraga Ortuondo               | EAJ/PNV   |
| - M <sup>a</sup> Jesús Arruabarrena Izagirre | EAJ/PNV   |

#### Bertaratu ez direnak

-

#### Idazkaria

- Xabin Olaizola Lasa

#### Aztergaiak

EGUNEKO AZTERGAIK	Zk / N <sup>o</sup>	ORDEN DEL DIA
2009ko urriaren 2ko aktaren onarpena	1.	Aprobación del acta de 2 de octubre de 2.009
2. xedapen-aldaketa Hirigintza jarduketa unitatea 21 "Zarkumendegi" eremuaren Plan Partziala	2.	Modificación puntual n <sup>o</sup> 2 del Plan Parcial del área AIU 21 "Zarkumendegi"
1. Xedapen-aldaketa Hirigintzarako jarduketa unitatea 21 "Zarkumendegi" eremuaren Hirigintzako Jarduketa Programa	3.	Modificación puntual n <sup>o</sup> 1 del Programa de actuación urbanizadora del área AIU 21 "Zarkumendegi"
1. Xedapen-aldaketa Hirigintzarako jarduketa unitatea 21 "Zarkumendegi" eremuaren Birpartzelazio Proiektua.	4.	Modificación puntual n <sup>o</sup> 1 del Proyecto de Reparcelación del área AIU 21 "Zarkumendegi"
Informazio, galdera-erreguak	5.	Información, ruegos y preguntas



# Astigarragako Udala

Idazkaritza Kontu-hartzailletza • Secretaria-Intervención  
idazkaritza@astigarraga.net

## Esan-eginak eta erabakiak

### 1. 2009ko urriaren 2ko aktaren onarpena

Akta, aho batez, onartzen da.

### 1. Aprobación del acta de 2 de octubre de 2.009

El Acta es aprobada por unanimidad.

### 2. 2. xedapen-aldaketa Hirigintza jarduketa unitatea 21 "Zarkumendegi" eremuaren Plan Partziala

Hirigintza Batzordearen irizpena aurkeztu da "Zarkumendegi" 21. Hirigintza Jarduketa Unitatea eremuko Plan Partzialaren 2. xedapen-aldaketari lotuta.

Eztabaidatu ondoren, irizpena bozkatu eta aho batez honako hau erabaki da:

**Lehena.-** "Zarkumendegi" 21. Hirigintza Jarduketa Unitateko Plan Partzialaren 2. xedapen-aldaketari hasierako onarpena ematea, jarraian adierazitako alderdiak betetzeko baldintzapean:

- 05. planoan, badauden azpiegiturei buruzkoa, osatu egin beharko da, ez baitira definitu telefoniaren, zuntz optikoaren eta saneamenduaren zerbitzuak, ezta banakako hartuneak eta futbol-zelaiko aldagelak izan beharko lituzkeen zerbitzuak ere, ezta eremuan autoak desegiteko dagoen jarduera ere, kontsolidatzen dena, alegia.

- Behin betiko onartzeko, A lursail berriko (aurreko A eta B lursailak elkartzearen eta egokitzearen ondoriozkoa) jarduerak, sarrerako atariak eta eremu komunak dituztenek, nahitaez komunitateko komunak eta zerbitzuak izan beharko ote dituzten edo bulego bakoitzeko komun eta zerbitzu

### 2. Modificación puntual nº 2 del Plan Parcial del área AIU 21 "Zarkumendegi"

Se presenta dictamen de la Comisión de Urbanismo en relación con la modificación puntual nº 2 del Plan Parcial del área AIU 21 "Zarkumendegi".

Tras un debate, se somete a votación el dictamen, y por unanimidad se acuerda lo siguiente:

**Primero.-** Aprobar, con carácter inicial y condicionado al cumplimiento de los siguientes aspectos, la 2ª modificación puntual del Plan Parcial de la A.I.U. 21 "Zarkumendegi":

- Se deberá completar el plano 05. Infraestructuras existentes, ya que no se han definido los servicios de telefonía, fibra óptica, saneamiento ni ninguna de las acometidas individuales ni de todos los servicios de que, se supone, disponen el vestuario del campo de fútbol, no la actividad de desguace de vehículos existente en el ámbito, y que se consolida.

- Para la aprobación definitiva se deberá estudiar si las actividades de la nueva parcela A –resultado de la fusión y ajuste de las anteriores A y B-, que cuentan con portales de acceso y zonas comunes, deberán disponer obligatoriamente de aseos y servicios comunitarios o aseos y



## Astigarragako Udala

Idazkaritza Kontu-hartzailetza • Secretaria-Intervención  
idazkaritza@astigarraga.net

independenteak izan beharko ote dituzten aztertu beharko da.

- Behin betiko onartzeko, dokumentuak oso-osorik bat egin beharko du udalerrriak onarturiko eta Foru Aldundiari bidaliriko Testu Bateginean aurreikusitakoarekin, baita geroagoko aldaketekin ere, Gipuzkoako Foru Aldundiak behin betiko onartu baino lehen.

**Bigarrena.-** Dokumentua jendaurrean jartzea, GAO n eta prentsan iragarkia jarri, 20 eguneko epean.

**Hirugarrena.-** Eusko Jaurlaritzaren Uraren Euskal Agentziari (URA) eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Errepideen Departamentuari aginduzko txostena eskatzea.

**Laugarrena.-** Aplika daitekeen hirigintzako legeriari jarraiki, interesdun guztiei banaka jakinaraztea hartzen den erabakia.

### **3. 1. xedapen-aldaketa Hirigintzarako jarduketa unitatea 21 “Zarkumendegi” eremuaren Hirigintzako Jarduketa Programa**

Hirigintza Batzordearen irizpena aurkeztu da “Zarkumendegi” 21. Hirigintza Jarduketa Unitatea eremuko Plan Partzialaren 1. xedapen-aldaketari lotuta.

Eztabaidatu ondoren, irizpena bozkatu eta aho batez honako hau erabaki da:

**Lehena.-** 1. xedapen-aldaketa Hirigintzarako jarduketa unitatea 21 “Zarkumendegi” eremuaren Hirigintzako Jarduketa programari hasierako onarpena ematea, jarraian adierazitako alderdiak betetzeko baldintzapean:

servicios independientes por cada oficina.

- La totalidad del documento para la aprobación definitiva, deberá coincidir en su totalidad con lo previsto en el Texto Refundido aprobado por el municipio y remitido a diputación, así como a posteriores modificaciones del mismo, previo a su aprobación definitiva, por parte de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

**Segundo.-** Someter el documento a información pública, insertando anuncio en el B.O.G. y en prensa, por el plazo de 20 días.

**Tercero.-** Solicitar informe preceptivo de URA Agencia Vasca del Agua del Gobierno Vasco y al Departamento de Carreteras de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

**Cuarto.-** Conforme a la legislación urbanística aplicable, notificar individualizadamente a todos los interesados, el acuerdo que se adopte.

### **3. Modificación puntual nº 1 del Programa de actuación urbanizadora del área AIU 21 “Zarkumendegi”**

Se presenta dictamen de la Comisión de Urbanismo en relación con la modificación puntual nº 1 del programa de actuación urbanizadora del área AIU 21 “Zarkumendegi”.

Tras un debate, se somete a votación el dictamen, y por unanimidad se acuerda lo siguiente:

**Primero.-** Aprobar, con carácter inicial y condicionado al cumplimiento y aclaración de los siguientes aspectos, la 1ª modificación puntual del Programa de Actuación Urbanizadora de la A.I.U. 21 “Zarkumendegi”.



## Astigarragako Udala

Idazkaritza Kontu-hartzailletza • Secretaria-Intervención  
idazkaritza@astigarraga.net

- Behin betiko onartzean, Birpartzelazioko proiektuaren 1. aldaketako (orain izapidetzen ari dena) hasierako onarpenak biltzen duena aintzat hartu beharko da futbol-zelaiko eta autoak desegiteko instalazioak balioetsiak izateko beharrari buruz.

- Behin betiko onartzeko, A lursail berriko (aurreko A eta B lursailak elkartzearen eta egokitzearen ondoriozkoa) jarduerak, sarrerako atariak eta eremu komunak dituztenek, nahitaez komunitateko komunak eta zerbitzuak izan beharko ote dituzten edo bulego bakoitzeko komun eta zerbitzu independenteak izan beharko ote dituzten aztertu beharko da.

- Behin betiko onartzeko dokumentuak oso-osorik bat egin beharko du udalerrriak onarturiko eta Foru Aldundiari bidaliriko Testu Bateginean aurreikusitakoarekin, baita geroagoko aldaketekin ere, Gipuzkoako Foru Aldundiak behin betiko onartu baino lehen.

- En la aprobación definitiva se deberá de tener en cuenta lo que la aprobación inicial de la 1ª modificación del proyecto de Reparcelación –ahora en trámite-recoja respecto a si las instalaciones actuales del campo de fútbol y del desguace deben ser valoradas o no.

- Para la aprobación definitiva se deberá estudiar si las actividades de la nueva parcela A –resultado de la fusión y ajuste de las anteriores A y B-, que cuentan con portales de acceso y zonas comunes, deberán disponer obligatoriamente de aseos y servicios comunitarios o aseos y servicios independientes por cada oficina.

- La totalidad del documento para la aprobación definitiva, deberá coincidir en su totalidad con lo previsto en el Texto Refundido aprobado por el municipio y remitido a diputación, así como a posteriores modificaciones del mismo, previo a su aprobación definitiva, por parte de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

**Bigarrena.-** Dokumentua jendaurrean jartzea, GAO n eta prentsan iragarkia jarriz, 20 eguneko epean, programaren edukiaren funtsezko elementuak adieraziz.

**Hirugarrena.-** Jardunak eraginpean hartzen dituen ondasunen eta eskubideen titularrei banaka jakinaraztea hartzen den erabakia.

**Segundo.-** Someter el documento a información pública, insertando anuncio en el B.O.G. y en prensa, por el plazo de 20 días y que contengan los elementos esenciales del contenido del programa.

**Tercero.-** Notificar individualizadamente a los titulares de bienes y derechos afectados por la actuación, el acuerdo que se adopte.

#### 4. 1. xedapen-aldaketa Hirigintzarako jarduketa unitatea 21 “Zarkumendegi” eremuaren

#### 4. Modificación puntual nº 1 del Proyecto de Reparcelación del área AIU 21 “Zarkumendegi”

Se presenta dictamen de la Comisión de



## Astigarragako Udala

Idazkaritza Kontu-hartzailletza • Secretaria-Intervención  
idazkaritza@astigarraga.net

### **Birpartzelazio proiektua**

Hirigintza Batzordearen irizpena aurkeztu da “Zarkumendegi” 21. Hirigintza Jarduketa Unitatea eremuko birpartzelazio-proiektuaren 1. aldaketari lotuta.

Eztabaidatu ondoren, irizpena bozkatu eta aho batez honako hau erabaki da:

**Lehena.-** “Zarkumendegi” 21. Hirigintza Jarduketa Unitateko Birpartzelazio proiektuaren 1 zk. aldaketari hasierako onarpena ematea, behin betiko onartua izateko bete beharko diren honako baldintza hauek betetzera baldintzatua:

- Gaur egun badaude zenbait udal-zerbitzu, baita UEU 21ean instalatuta dagoen desegite-jarduerakoak ere, zerbitzu, sarbide eta azpiegitura propioak baliatzen dituen, egoera hobean edo txarragoan, eta Udalari dagokionez berreraikitzen saiatu edo kalte-ordaina eman beharko litzaiekeenak hirigintza-jardunarengatik.

Kasuren batean kalte-ordaina emateko edo beste zerbitzuak emateko betebeharra badago, edo oraingoan egoera txarrarengatik edo beste edozein arrazorengatik inolako betebeharririk ez badago, behar bezala eta idazki bidez justifikatu beharko da.

- Horregatik izapidetzen ari den Plan Partzialaren 2. aldaketako 05. planoan, badauden azpiegiturei buruzkoa, osatzeko eskatu da, ez baitira definitu telefoniaren, zuntz optikoaren eta saneamenduaren zerbitzuak, ezta banakako hartuneak eta futbol-zelaiko aldagelak izan beharko lituzkeen zerbitzuak ere, ezta eremuan autoak desegiteko dagoen jarduera ere, kontsolidatzen dena, alegia.

- Behin betiko onartzeko, A lursail

Urbanismo en relación con la modificación puntual nº 1 del proyecto de reparcelación del área AIU 21 “Zarkumendegi”.

Tras un debate, se somete a votación el dictamen, y por unanimidad se acuerda lo siguiente:

**Primero.-** Aprobar, con carácter inicial la primera modificación puntual del Programa de Actuación Urbanizadora de la A.I.U. 21 “Zarkumendegi” condicionada al cumplimiento de las siguientes condiciones, que deberán resolverse para la aprobación definitiva:

- Existen unos servicios municipales en la actualidad, así como los de la actividad de desguace instalada en la U.E.U. 21.1, que dispone de unos servicios, accesos y demás infraestructuras, en mejor o peor estado, que debieran, en lo que respecta al ayuntamiento, intentar reconstruir o indemnizar por la actuación urbanística.

Si existe obligación de indemnizar o dar nuevos servicios en algún caso, como si no existe ninguna obligatoriedad por el mal estado de los actuales u otra razón, deberá de justificarse por escrito debidamente. Por ello se ha solicitado que se complete el plano 05. Infraestructuras existentes de la 2ª Modificación del Plan Parcial en tramitación, ya que no se han definido los servicios de telefonía, fibra óptica, saneamiento ni ninguna de las acometidas individuales ni de todos los servicios de que, se supone, disponen el vestuario del campo de fútbol y la actividad de desguace de vehículos existente en el ámbito, y que se consolida.

- Para la aprobación definitiva se deberá estudiar si las actividades



# Astigarragako Udala

Idazkaritza Kontu-hartzailetza • Secretaria-Intervención  
idazkaritza@astigarraga.net

berriko (aurreko A eta B lursailak elkartzearen eta egokitzearen ondoriozkoa) jarduerak, sarrerako atariak eta eremu komunak dituztenek, nahitaez komunitateko komunak eta zerbitzuak izan beharko ote dituzten edo bulego bakoitzeko komun eta zerbitzu independenteak izan beharko ote dituzten aztertu beharko da.

- Behin betiko onartzeko dokumentuak oso-osorik bat egin beharko du udalerriak onarturiko eta Foru Aldundiari bidaliriko Testu Bateginean aurreikusitakoarekin, baita geroagoko aldaketekin ere, Gipuzkoako Foru Aldundiak behin betiko onartu baino lehen.

**Bigarrena.-** Dokumentua jendaurrean jartzea, GAO-n eta prentsan iragarkia jarri, 20 eguneko epean.

**Hirugarrena.-** Jardunak eraginpean hartzen dituen ondasunen eta eskubideen titularrei banaka jakinaraztea hartzen den erabakia, eraginpean hartutako jaberengatik batek alegaziorik edo iradokizunik egin nahi izanez gero.

de la nueva parcela A –resultado de la fusión y ajuste de las anteriores A y B-, que cuentan con portales de acceso y zonas comunes, deberán disponer obligatoriamente de aseos y servicios comunitarios o aseos y servicios independientes por cada oficina.

- La totalidad del documento para la aprobación definitiva, deberá coincidir en su totalidad con lo previsto en el Texto Refundido aprobado por el municipio y remitido a diputación, así como a posteriores modificaciones del mismo, previo a su aprobación definitiva, por parte de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

**Segundo.-** Someter el documento a información pública, insertando anuncio en el B.O.G. y en prensa, por el plazo de 20 días.

**Tercero.-** Notificar individualizadamente a los titulares de bienes y derechos afectados, el acuerdo que se adopte, para el caso de que algún propietario afectado decida hacer alguna alegación o sugerencia.

## 5. Informazio, galdera-erreguak

5.1. Alkateak premiazkotzat jotzeko aitoren aurrekoa aurkeztu du honako gai honi dagokionez: Mari Carmen Martin Acostak bide publikoan erori zelako jasandako kalteen ondarezko erantzukizunen erreklamazioa.

Aho batez onartu da premiazkotzat jotzeko aitoren aurrekoa.

Istripu horri buruz Eusko Jaurlaritzaren Aholku Batzorde

## 5. Información, ruegos y preguntas

5.1. El Alcalde presenta para la previa declaración de urgencia el tema sobre la reclamación de responsabilidad patrimonial por los daños sufridos por Mari Carmen Martín Acosta como consecuencia de una caída en la vía pública.

La previa de declaración de urgencia es aprobada por unanimidad.

El Secretario-Interventor informa sobre el dictamen



## Astigarragako Udala

Idazkaritza Kontu-hartzailetza • Secretaria-Intervención  
idazkaritza@astigarraga.net

Juridikoak bidalitako irizpenaren berri eman du idazkari kontu-hartzaileak, eta horren arabera ez dago Astigarragako Udalaren ondarezko erantzukizunik Mari Carmen Martin Acostaren eskaerarekin lotuta; bideratutako espedientea berretsi egin du.

Batzordeko kideek aho batez berretsi dute Udalak adierazitako ebazpen-proposamena, Udalaren behin betiko ebazpen eginez; erreklamatzailerari jakinaraziko zaio.

emitido por la Comisión Jurídica Asesora del Gobierno Vasco en relación a este accidente, donde indica que no existe responsabilidad patrimonial del Ayuntamiento de Astigarraga en relación con la solicitud de Marí Carmen Martín Acosta, ratificando el expediente instruido.

Los miembros de la Junta, por unanimidad, ratifican la propuesta de resolución formulada por el Ayuntamiento pasando a ser definitiva como propia resolución que será notificada a la reclamante.

5.2. Idazkari kontu-hartzaileak Administrazioarekiko Auzietako Donostiako 3. Epaitegiaren 170/2009 epaiaren berri eman du. Epai horrek osorik ezesten du Bidebitarte poligonoko 7. orubearen kalifikazioarengatik, jabari publikoa dela eta bertatik joanaraztea agintzen duen 554/2008 prozesu arruntari buruz Tximelak jarritako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa.

5.2. El Secretario-Interventor informa sobre la sentencia 170/2009 dictada por el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo nº 3 de Donostia, en el que desestima íntegramente el recurso contencioso administrativo, sobre el proceso ordinario 554/2008 interpuesto por Tximela por la calificación del solar número 7 del polígono Bidebitarte donde se marcaba que era de dominio público y se ordenaba el desalojo del mismo.

Bilera amaitutzat eman dugu eta, eztabaidatu eta erabakitakoa jasota gera dadin, agiri hau egiten dut.

Astigarraga, 2009ko urriaren 9an

**Xabin Olaizola Lasa**  
**Idazkari kontu-hartzailea**